

Caroline Senneville. CSNko Presidentea / Presidenta de la CSN. Quebec

Euskara.

Kaixo adiskide maiteak:

Hona hemen nire burua: Caroline Senneville, CSN Quebecoko lehen sindikatu nagusiko presidentea. 100 urte beteko ditu aurten gure sindikatuak eta 320.000 kide baino gehiago ditu orain. Joan den ekainean hautatu ninduten, lehendakariordetzan 4 urte eman ondoren eta CSNn 25 urte baino gehiago militatu ondoren. Poz-pozik nago zuen XV. Kongresuan hitz egiteko aukera izateagatik, nahiz eta nahiago izango nukeen zuen artean egotea osasun-baldintzek horretarako aukera eman izan balute.

ELA ondo ezagutzen dut. Gure organizazioak harremana dute orain dela hamarkadak, eta garrantzitsua da elkartzen gaituen lotura hori gordetzea. Gure bi organizazioak indartsuak, borrokalariak eta abertzaleak dira. Distantzia, pandemia eta ezagutzen ditugun garai zailak gorabehera, CSN hor dago, ELArekin, entzuten, eta injustizien aurka elkarrekin borrokatzeko prest.

Lotura horiek inoiz baino beharrezkoagoak dira, mundua oraindik ez baita bere onera bueltatu garai modernoetako pandemia beldurgarrietatik. COVID-19ak eragin handia izan du lan-munduan, eta milioika langilek larrutik ordaintzen jarraitzen dute. Batzuk lehenengo lerroan daude, beste batzuk egoera jasanezinean lan egiten dute. Batzuk nekez egokitzen dira telelanera; beste batzuk, berriz, lana galdu dute edo diru-sarrerak galdu dituzte. Batzuek beren bizitzarekin ere ordaindu dute...

Laburbilduz, langile guztiak modu batera edo bestera ukituak izan dira, bai sektore publikoan, bai pribatuan, sindikatuta egon ala ez. Eta denbora horretan guztian, patronalak ez digu nahitaez lana erraztu. Zorionez, sindikatuak hor daude kideak babesteko, noski, baina baita azken 18 hilabeteetan gehegikeriak jasan dituzten gizarteko zaugarrienak ere. Izan ere, pandemiak are gehiago azaleratu ditu gure gizarteei eragiten dieten desberdintasunak, hala nola arrazismoa eta sexismoa. Ahal den guztia egin behar da desberdintasun horiek desagerrarazteko.

Gaur esan nahi dudana da, nahiz eta testuinguru pandemikoa oso zaila izan organizazioentzat, ez dela ahaztu behar gure kideak defendatzea, alderantziz: une egokia da post-covid gizartea bidezkoagoa izan dadin langileentzat eta herritar guztientzat. Gure misioaren muina da.

Elkartruke aberatsak, eztabaida onak eta kongresu bikaina opa nahi dizuet. Baldintzak hobek direnean, zuek aurrez aurre ikusteko gogoia daukat!

Elkartasuna!

Castellano.

Hola queridos camaradas, Kaixo adiskide maiteak,

Me presento: Caroline Senneville, presidenta de la primera gran central sindical de Quebec, la CSN, que este año celebra su centenario y que cuenta con más de 320.000 miembros. Fui elegida el pasado mes de junio, después de 4 años en la vicepresidencia y tras más de 25 años de militancia en la CSN, y estoy encantada de tener la oportunidad de dirigiros estas palabras para vuestro XV Congreso, aunque hubiera preferido estar con vosotras y vosotros si las condiciones sanitarias lo hubieran permitido!

Conozco bien a ELA. Nuestras organizaciones están vinculadas desde hace décadas y es importante preservar este vínculo que nos une. Nuestras dos organizaciones son fuertes, combativas y nacionalistas. A pesar de la distancia, la pandemia y los tiempos difíciles que vivimos la CSN está ahí, en solidaridad con ELA, escuchando y siempre dispuesta a intercambiar y a luchar juntas contra las injusticias.

Estos vínculos son más necesarios que nunca, ya que el mundo aún no se ha recuperado de la pandemia más terrible de los tiempos modernos. La COVID-19 ha afectado significativamente al mundo del trabajo y millones de trabajadoras y trabajadores siguen pagando el precio. Algunos están al frente, otros trabajan en condiciones insoportables. A algunos les resulta difícil adaptarse al teletrabajo, mientras que otros han perdido sus trabajos o han sufrido una pérdida significativa de ingresos. Algunos incluso han pagado con sus vidas ...

En definitiva, todos los trabajadores y trabajadoras se han visto afectados de una forma u otra, tanto si trabajan en el sector público como en el privado, estén o no sindicados. Y durante todo este tiempo, la patronal no necesariamente ha facilitado nuestro trabajo. Afortunadamente, los sindicatos están ahí para proteger a sus miembros, por supuesto, pero también a los más vulnerables de la sociedad que han sufrido terribles abusos durante los últimos 18 meses. De hecho, la pandemia ha sacado a la luz de manera aún más notable las desigualdades que afectan a nuestras sociedades, como el racismo y el sexismo. Hay que hacer todo lo posible para acabar con estas desigualdades.

Entonces lo que quiero decir hoy es que aunque el contexto pandémico sea sumamente difícil para cada organización, no debemos olvidarnos de defender a nuestros miembros, al contrario: es hora de redoblar esfuerzos para que la sociedad post-covid sea más justa y más equitativa para los trabajadores y el conjunto de la población. Este es el corazón de nuestra misión.

Os deseo intercambios enriquecedores, buenos debates y un excelente congreso. ¡Esperamos veros en persona cuando las condiciones sean más favorables!

¡Elkartasuna! ¡Solidaridad!